

Idiazabalgo mojak

La red de Institutos Religiosos femeninos de Euskal Herria presenta a veces realidades de envergadura con Colegios y Entidades mayores. Sin embargo, muchas Comunidades optaron y optan por una presencia social más capilar y menuda, en cierto modo más recatada. Así sucede con las religiosas que conocemos como "las Monjas de Idiazabal", que no son sino las Hnas. de la Providencia, de Gap, llegadas aquí en 1903.

Euskal Herriko beren Etxe Nagusia Idiazabalen duten Probidentziako Ahizpen Institutua ez da jatorriz hemen sortua, beste kasu gehienetan bezala. Dena den, dagoeneko mende osoa bete du gurean, eta ez Idiazabalen bakarrik, baita beste hainbat herritan ere. Bestalde, Euskal Herri-rik kanpora hemendik zabaldu eta gidatua izan da Espainiako eskualdeetan (Andaluzian eta Extremaduran batik bat).

Garai zailetan jaiotakoak (1762, 1838)

Frantziar Institutu Erlijiosoen erreformak bulztatu nahi izan ziren urteetan (1760ko hamarkadan) eta Iraultzak erbestera bidali zituen sasoiaren (1789...) jarri behar da Probidentziako Kongregazio honen lehen jatorria, nahiz eta Institutua bera Gap-en 1838ko ekainaren 6an sortu zen.

Jatorrizko sorrera hura Joan-Martin Moyë (1730-1793) apaizari zor zaio. Lorenako apaiz diozesitarra zen Moyë, eta biziki arduraturik zebilen baserri-landetako haurren hezkuntzaz: hainbat auzo galdutan bizi ziren umeak zituen gogoan, askotan inolako dotrina eta eskola-aukerarik gabe zebiltzanak.

Jainkoaren begiradapean, Probidentziari bere lekua utziz, ausartak izateko eskubidea defendatu zuen beti Moyë-k, nahiz eta sarritan

beltzak pasa. Gotzainek eta apaiz lagunek ez zioten erraz ulertu hainbat ekimenetan izan zuen jokabide arriskatua. Debekatu ere egin zioten herri-eskola berriak irekitzea.

Halako batean, laguntzeko prest ageri ziren neska eta emakume gazteak inguratu zitzaizkion, eta haietako batzuk eskualdeko auzo pobreetara bidaltzea erabaki zuen apaizak (1762ko urtarrilaren 14an); baliabide eskasekin, baina bihotz-zabaltasun handiarekin heldu zioten hezkuntza-lanari.

Hori jada abiarazita zuenean, Atzerri Misio-etako Pariseko Seminarioan sartu zen Moyë, eta Txinara joan. Han ere herri txikietako haurrentzako eskolak sortu eta Birjina Txinatarren elkar-tea sortu zuen; saiatu zen, gainera, herri-hizkuntzan otoitz kristauak idazten. 10 urteren buruan itzuli zen Europara (1784), eta orduan ikusi ahal izan zuen nola hazi eta zabaldu ziren Probidentziako mojak. Berehala, Iraultzak erbestera eraman zuen, Alemaniako Trier-era, eta soldadu gaixoen zerbitzuan zebilela kutsatuta hil zen, 1793ko maiatzaren 4an.

Moyë hil eta gero, hark erakutsitako bideak luzaro iraun du, eta bost Kongregazio ezberdin eman ditu, bostak gurasotzat Joan-Martin aitortzen dutenak eta denak ere ikur bera dutenak: Probidentzia gidari, maitasunean, pobrezian



eta xumetasunean bizi nahi dute Probidentziako Ahizpek.

Euskal Herrian (1903...)

1902an, Lege frantsesen aginduz, Gap-en barrutiko 73 eskola eta Lectoure aldeko beste 32 itxi behar izan zituzten moja hauek. Komentu-etxe gutxitan bildu ziren denak, harik eta erbesteko bidea hartzea erabaki zuten arte. Hortaz, artikulu-sail honetako irakurleak dagoeneko ezagunak dituen Frantziako gertakari politikoek eka-ri zituzten gure artera.

Frantziatik etorrira, hasieran Probintzia erlijioso bakarrekoak izan ziren, eta Lectoure-ren mende egon. Idiazabalgo Etxea ireki aurretik, berrogei urtetan ehun eta gehiago neska pasatu zen Lectoure-ko Nobizio-Etxe hartatik (1904-1943). 1959an sortu zuten Espainiako Probintzia, eta hortik aurrera hemengo Ahizpa eta Etxe guztiak bertako Ama Probintzialaren esanetara egon dira (aurten betetzen dira, hain zuzen, 50 urte).

Erietxe, haur-eskola, zahar-etxe eta parrokietako lanak izan dira Probidentziako Ahizpa hauen zeregin ohikoenak. Ia beti, dauden tokietan Ahizparteak bezala Ahizpa bakoitzak ere horrelako lanetan eman dituzte beren egun eta orduak. Esan beharra dago, gainera, gero eta nabariagoa izan dela lekaimeon artean moja bakoitzaren dohain pertsonalei askatasunez bide urratzen uzteko jarrera, norberaren gogo librean bere emaitzak eman ditzan.

Herri txiki eta handiako askotan bizi izan dira Idiazabalgo Mojak, Donostian hasi ziren, Ate-

gorrietan (1903), eta hainbat herritan egon dira aldi batez (Zarautz, Asteasu, Urnieta eta abar); Etxeak, premien eta indarren arabera ireki eta itxi dituzte. Guztien biltoki eta topagune nagusia Idiazabalgo Nobizio-Etxe eta Nagusi-Etxe izan da.

Bizpahiru edo lauzpabost laguneko talde-txotan banatuta bizi izan dira, Komentu itxurarik gabeko etxebizitzatan, nahiz eta iraganean batez ere Klinika eta Ikastetxe jakinetan ere lan egin duten. Gaur egun, oso ohikoa dute lantegi, parrokia eta zerbitzu ezberdinetan beren laguntza ematea, batzutan soldataren bat jasoz, bestetan borondatezko laguntzak eskainiz, eta inoiz edo bestetan Caritas eta antzeko erakundeetan jardunez.

Donostia, Tolosa, Bilbo, Gasteiz edo Iruñean osasun-zerbitzuetan izan dute lekurik Probidentziako Ahizpek, eta Euskal Herriatik zabaldu dira Extremadura, Andaluzia eta Madrilera, eta Bolivia-ra, betiere guztien Sortetxea Idiazabalen dutela. Modu iraunkorrean edo aldi batez, 50 Etxe izan dituzte Penintsulan.

2008an 110 Ahizpa ziren Probintzia honetan, eta hauetako 79 Euskal Herrian zeuden bizi-tzen. Orotara, Hegoaldeko 164 euskal herritar izan dira Kongregazio honetako lekaimeak: gipuzkoarrak 76, arabarrak 46, nafarrak 27 eta bizkaitarrak 15.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610273580